

**IRAKASKUNTZA PROFESIONALEKO ZENTROA**  
**MUSIKA ESKOLA**



**Bilboko Koral Elkarte**  
**Sociedad Coral de Bilbao**

**2022 / 2023**

**IKASTURTEA**

# MATRIKULA EGITEKO ETA ORDUTEGIA AUKERATZEKO PROZEDURA

## 8 urtera bitarteko ikasleak (Musika Hastapen Tailerra)

- Matrikulatzeko epea:** maiatzaren 30etik ekainaren 3ra  
E-postaz jakinaraziko da ikaslea zein **mailatan matrikulatu den**, hala nola **tailer-ordutegia eta instrumentua**. Adierazitako epean berretsi edo moldatu beharko da.
- Ordutegi-hautaketa (Instrumentu-hastapena):** irailaren 19tik aurrera.
  - Instrumentu-hastapenean lehen aldiz hasi nahi duten ikasleek idazkaritzan jakinarazi beharko dute, matrikula-epeldian.**
  - Ordutegia aukeratzeko lehenengoak aurreko ikasturtean instrumentu-hastapena egindako ikasleak izango dira. Ondoren, instrumentu-hastapena aurrenekoz egin nahi dutenak. Kasu bietan, ordena tailer-mailaren arabera izango da 2. mailatik (7 urte) hasita eta maila bakoitzaren barruan ikasleen abizenen ordena alfabetikoa jarraituko da, zozketan ateratzen den hizkiaren arabera.
  - Gogoratu nahi dizuegu instrumentu-hastapena egiteko eskaera egin izanak ez duela lekua izatea bermatzen.

### **INSKRIPZIO-TASAK**

Musika-hastapena .....	53,00 €
Musika-tresnen hastapena .....	43,00 €

Inskripzioaren tasa ikaslearen banku-kontutik kenduko da.

## 8 urtetik gorako ikasleak (Irakaskuntza Arautua eta Ez Arautua)

- Matrikulatzeko epea:** ekainaren 6tik 15era  
E-postaz jakinaraziko da ikaslearen **matrikularen datuak**. Adierazitako epean berretsi edo moldatu beharko da.
- Ordutegi-hautaketa (telefonoz):** abuztuaren 31tik aurrera.
  - Mesedez, deia hartu esleituriko orduan puntuan, ezarritako ordenari eutsi ahal izateko.**
  - Ekainaren 23tik aurrera ordutegiak hautatzeko ordena zentrora deituta edo web gunean jakin ahal izango da:  
[www.coraldebilbao.com/enseñanza-musical/información-académica](http://www.coraldebilbao.com/enseñanza-musical/información-académica)
  - Gratu Profesionaleko 5. eta 6. mailako ikasleekin hasi (abuz. 31) eta gainerakoekin jarraituko da (irai. 1), abizenaren ordena alfabetikoaren arabera, letra-zozketan ezarritako ordenari jarraikiz.
  - Matrikula adierazitako epean berresten ez bada, ezingo da letra-zozketan parte hartu, eta, ondorioz, ordutegia aukeratzeko ordena galdu egingo da.
  - Helduek** irailaren 27tik aurrera aukeratu dute ordutegia.

### **INSKRIPZIO-TASAK**

Oinarrizko maila .....	75,00 €
Irakaskuntza Profesionalak .....	80,00 €
Musika Eskola (espezialitate bakoitzeko) .....	65,00 €

Inskripzioaren tasa ikaslearen banku-kontutik kenduko da.

- 1) Inskripzioa egiteko:
  - **Erantzun matrikulaziorako e-postari** matrikularen datuak berresteko edo aldatzeko.
  - Datu pertsonaletan edo bankuari dagozkion datuetan **aldaketarik izanez gero, jakinarazi zentroari.**
  - **Kide ugariko familia titulua** duten ikasleek deskontua izango dute ikasturteko hileko zenbatekoetan.
  - **Ikasle berriek** ikasketa-espeditentea ekarri beharko dute beste zentro batetik badatoz.
- 2) **Inskripzioaren tasa**, ikasturteko materiala eta eskola-asegurua barne, **ikaslearen banku-kontutik kenduko da.**

**2022/23 IKASTURTEAREN HASIERA: Irailaren 8an  
(Musika-tresnen hastapenak eta helduen ikasketak  
urriaren 3an hasiko dira)**

## **NORMAS GENERALES**

- 1) Bilboko Koral Elkarteko ikasleek **bazkideak** izan behar dute.
- 2) Eskolaratzeagatiko zenbateko guztiek bankuan helbideraturik egon beharko dute. **Agiriak itzultzeagatiko gastuak ordainketan gehituko dira.**
- 3) Edozein ikasgaitan baja hartzeko berori idatziz jakinazari beharko da Idazkaritzan, berori gertatu baino **bi hilabete lehenago.**
- 4) Ikasturtean **eskolaratzeagatiko zenbatekoen 10 hilabeteko** oso helaraziko dira (9 helduen kasuan).
- 5) Zentroak beretzat gordetzen du ikasle berriei **onarpen frogak** egiteko eskubidea.
- 6) **Ikasle guztiek** derrigor hartu behar dute parte entzunaldietan, jarduera osagarrietan eta taldekako musika praktketan, hauek Ikastegiak egoki deritzon orkestra edota abesbatza taldean burutuko dira. Entsegu eta kontzertuetara jarraikortasunez agertzea ezinbestekoa izango da ikasturtea gainditzeko.
- 7) **Irakaskuntza araupetutik araupetu gabekora aldaltzeak** araupetutakoaren matrikula-jarraikortasuna galtzea dakar.

## **DATUEN BABESA**

Abenduaren 13ko Norberaren Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu formulario hau bete ondoren lortutako datuak BILBOKO KORAL ELKARTEAren fitxategi batean gordeko direla, ikastegiko antolaketa eta kudeaketa erraztearren. Aipatu datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren esku jarriko dira legezko ondorioetarako.

BILBOKO KORAL ELKARTEAk ikastegiko ikasleak agertu edota jarduten direneko irudi edota soinu-artxiboak sortu ahal izango ditu, beti ere hauek ikasketei lotutako ekitaldiei badagozkie. Norberaren irudirako eskubidea Konstituzioaren 18. artikuluan eta ohore, intimitate pertsonal eta familiar eta norberaren irudirako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legean nahiz Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legean jasota dago.

Datuei buruzko atzipen, zuzenketa, deuseztapen eta aurkaritza eskubideak baliatzeko, idatziz helbide honetara jo beharko duzu: BILBOKO KORAL ELKARTEA, Felipe Serrate 2, 48013 Bilbo.

Matrikulaziorako e-postari baieztatzerakoan berariaz baimena ematen duzu zeure datu pertsonalak, irudi edo soinu-artxiboak aurreko lerroaldeetan jakinarazitakoaren arabera erabiltzeko.